

# noaua



Larunbat honetan,  
herri-antzerkia Kalezarren

Artisauak plazara itzuli dira

Ainara Ortega eta Iñaki  
Salvador Patrin arituko  
dira azaroaren 13an

‘Bete eingoiau’ antzezlan. Argazkia: Iñaki Rubio.



## NOAUA! Kulturaldia umoretsu hasiko da

6. or.

**KAFE GARAIA**

**Arantxa Manterola:**

“Hemen kalteak eta minak  
denek eragin dituzte”

# Otar-Goxo

Elifkagaia k  
Alimentación

AZAROATIK AURRERANTZ  
EGUN GUZTIA ZABALIK  
OSTEGUNA ETA OSTIRALETAN

8:30TATIK  
ARRATSALDEKO  
20:00TARA

ETXERAKO ZERBITZUA - ESKAERAK

943 36 55 81  
677 64 27 76

**DOAN!**



GOLDWELL  
ELUMEN

i  
l  
e  
a  
p  
a  
i  
n  
d  
e  
g  
i



Kolorazioetan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951



bueltan da Usurbilen!

Astelehen eta Asteazkenak (15:00)  
edo Astearte eta Ostegunak (19:15)

Froga eguna eta matrikula DOAN



Jarri gurekin kontaktuan  
whatsapp bidez 688 610 932.

**Mugitu zure osasunagatik**



# noqua



Askorako eman dute 25 urtek.  
1996. urtean usurbildar askoren  
inplikazioari esker izugarrizko  
bultzada izan zuen Noaua  
Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada  
jaio zen usurbildarren bihotzetik  
eta eskuz esku mantendu  
da inder hau denbora guzti  
honetan zehar.

## HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten  
jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€  
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?  
Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

**25 € / URTEAN\***

\* 30 urte betetzean automatikoki bazkidezza  
arrunta izatera pasako da



ESKANEATU

## ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaua Kultur Elkartea  
eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoak, etabar  
bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta  
arruntez jaso aukera.

## ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan  
erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

## Albisteak iruditan

## “Zaborra gara”



Argazkia: Xingola Usurbil.



Argazkia: Adolfo Romero.



Argazkia: Adolfo Romero.

**T**witterretik jaso dugu albiste honen goiburua eta ezkerretara da goen argazkia. Xingola Usurbil erabiltzaileak hainbat argazki igo zituen igandean (urriak 31). Andatzako aterpearen ezkerretara erreparatzen baduzue,

zabor ugari dago sakabanatuta.

Astebete lehenago, salaketa bera egin zuten beste herritar batek. Adolfo Romerok argazki batzuk atera zituen eta NOAUA!ra igorri zituen urriaren 24an (erdiko irudia).

Bide batez, ikurriña berria jarri dute Andatza gainean. Adolfo Romerok berak bidali digu horren erakusgarri den argazkia (eskubikoa). Eta ikurriñaren irudiarekin batera, ondoko hitzak ere: “Eskerrik asko Luis eta kuadrilla”.

## Laburrean

## 79,26tik 142,68ra igo da intzidentzia astebetean

4 kasu berri detektatu ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Usurbilen iragan aste osoan. 12 urria osoan, 9 azken hamabostaldian. Eremu horian jarraitzen du udalerrri honek.

## Gripearen aurkako txertaketa kanpaina

Arrisku-taldeetan direnentzat abian da. Azaroaren 15etik aurrera edonorentzat. 70 urtetik gorakoek Covid19aren aurkako 3. dosia ere hartu ahalko dute. Hitzordua anbulatorioan eska daiteke.

## Azaroaren 8an, odola emateko aukera berri bat

Odola emateko aukera izango duzue azaroaren 8an, 16:30-20:10 artean Udarregi Ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldia dutenei dei dezatela hona: 943 007 884.

# noaua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatorra:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

Euskal Herrerria!



Luis Aranalde

**M**exikoko independentzia deklaratu zutela 200 urte dira; hori dela eta Frantzisko Aita Santuak mezu bat bidali die mexikarrei iragan den irailean, baina kritikoek, gaizki esaleek eta eskuin muturrekoek, “testua irakurri gabe”, diote gehienek, manipulatu egin dute Frantziskoren deklarazioa beren Bergogliofobia asetzeko.

Frantziskoren hitz polemikoenak hauek dira: “iraganaren berrirakurketa bat egin beharra daukagu, izan ere argi unez eta ilun gunez josita baitago historia. Nire aurrekoek eta neuk askotan eskatu dugu barkamena ebanjelioa zabaltze lanetan egin diren bekatu pertsonal eta sozialengatik”. Hemen ez du aipatu ere egiten ez Espainiako Koroirik ezta kolonizatzailek ere.

Ultrakontserbadore batzuen esanetan Aita Santu hau “antiespainola” da eta polemikak alde batera utzi beharrean, “progresismo edo aurrerazetasun faltsu baten lokatzetan plisti-plasta ibiltzea gustukoa du. Aita Santu honekin Espiritu Santuak huts egin zuen, hau ez da guk espero genuen pontifizea”. Horrelako esaldi bitxiak irakurri ditugu.

Dena dela, oraingoan baino

## Gizatasunez jokatzeari barkamena eskatzea



“Barkamena eskatzea erlijio kontua duk”, entzun nion gure politiko bati. “Ez, esan nion, erlijioak plus bat eskatuko dik agian, baina barkazioa eskatzea gizatasunez jokatzeari duk batez ere”.

### LUIS ARANALDE

**Oraingoan baino modu argiagoan hitz egin zuen Bergogliok 2015ean Boliviara egin zuen bisitan. “Bekatu asko eta larriak egin dira Ameriketako jatorrizko herrien aurka Jainkoaren izenean. Barkazioa eskatzen dut apalki”, esan zuen**

modu argiagoan hitz egin zuen Bergogliok 2015ean Boliviara egin zuen bisitan. Barkamena eskatu zuen Elizak Ameriketako berezko (natibo) herrien aurka egindako krimenengatik. “Bekatu asko eta larriak egin dira Ameriketako jatorrizko herrien aurka Jainkoaren izenean. Barkazioa eskatzen dut apalki”, esan zuen.

Latinoamerikan egindako

adierazpen horiek oihartzun handia izan bazuten ere, ez zen kolonizazioaz hitz egiten lehena izan. 1992an, Juan Pablo II.ak barkazioa eskatu zien Amerikako herriei euren arbasoen aurka egindako bidegabekeriengatik. 2007an Benedikto XVI.ak esan zuen: “iragan distiratsu baten oroimenak ezin du ahantzi amerikar kontinentearen ebanjelizatzeak izan zituen ilun uneak: ezin dira ahaztu kolonizatzaileek herri indigenei jasanarazi zizkieten sufrimenduak eta injustiziak”. Jainkoaren izenean gauza batzuk ondo egin zituzten, baina beste batzuetan botereaz abusatuta zutela aitortu dute Elizaren buruzagiek.

Frantziskoren etsai hauek ez dute nonbait irakurri konkista garaian lekuko izan ziren Frai Antonio de Montesinos eta Frai Bartolomé de las Casas Domingotarrak eta gure

Frai Juan de Zumarraga Frantziskotarraren idazkirik. Beren bizia arriskuan jarriz indioak defendatzeagatik, honela dio Montesinosek bere “Abendualdiko sermoi” ezagunean: “Denak heriozko bekatuan zaudete jende errugabe horiekin darabiltzazuen ankerkeria eta tiraniagatik. Ez al dute arima arrazionalik? Ez al dira pertsonak? Errukirik gabe animalia gisa tratatzen dituzue”. Eta gure Zumarragako Juan Anaiak honela zioen: “Ez dut etsiko indio gajo horien defentsan, bizia kentzen baldin badidate ere”. Apala zela diote garai hartako kronistek, pobreen eta indioen laguntzaile.

Lehenengo batean irakurtzen nion gure kazetari bati ezin daitekeela esan gure historia urruneko (eta hurbileko) hainbat kontu harro egoteko modukoak direnik. Walter Benjamin filosofoak ondo azaldu zuen zibilizazioaren eta basakeriaren arteko harreman makurra. “Ez dago kultura-dokumenturik ez dena, aldi berean, basakeriaren dokumentu”. “Barkamena eskatzea erlijio kontua duk”, entzun nion gure politiko bati. “Ez, esan nion, erlijioak plus bat eskatuko dik agian, baina barkazioa eskatzea gizatasunez jokatzeari duk batez ere”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

### Komikia



# “Bide onetik doa” udal aurrekontuen exekuzioa

Hiruhilero moduan, 2021eko udal aurrekontuen exekuzioa zertan den argibideak eskaini zituen Xabier Olano udal kontuhartzaileak urriaren 28ko osoko bilkuran. “Txukun exekutatzeko” doazela zehaztu zuen, ezohikoa izan zen “iazko urtekoa baino hobeto”.

Diru-sarreraren exekuzioa %66,81an da, gastuena %50ean. Hala segiz gero, urte amaierarako diru-sarreraren exekuzioa %90era igo daiteke, zertxobait beherago gera daiteke gastuena. Datu gehiago; Udalaren zorpetze maila %12,88koa da. Urtean zehar izaten ari den bilakaeraren erakusle, ekainean %22an zela. “Bide onetik goaz”, zioen zehaztasunon berri emateko Olanok aipatu osoko bilkuran hitza hartu zuenean.

Urte amaiera begirako albiste on bat ere ekarri zuen udal kontuhartzaileak iragan asteko udalbatzarrerara. Foru Aldunditik udalari jakinarazi zionez, Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino 450.000 euro gehiago jaso ditzake udalerrri honek urte amaieran.

**Añarbeko behe kanalaren alternatiba eraikitzeke lanak lehenbailehen egiteko eskaera** Eskari hau urriaren 28ko osoko bilkuran aho batez onarturiko mozio bidez bideratu zion udalbatzak, Espainiako Gobernuko Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari. Lanok 2022rako Estatuko Aurrekontu Oroko-



Urriaren 28ko plenoan, besteak beste, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetzaren hitzarmena berritzea erabaki zen ahobatez.

## URTE AMAIERAN

### **Aldundiko Foru Funtsetik aurreikusitakoa baino 450.000 euro gehiago jaso ditzake Usurbilek**

rretan txertatzea edota “eskura duen beste edozein finantzaketa-sistema bidez” gauzatzea eskatu zuten.

Erakunde ezberdinek hainbat urrats eman arren egitasmo honek esleitu gabe segitzen du mozioak ohartarazten duenez, eta ondorioz, 11,9 kilometro luze dituen “egungo behe kanalak (Añarbe eta Petritegiko edateko uren tratamendu estazio artekoa) ondorio larriren bat izateko arriskua du”. 1960koa da eta zaharkitua dago, eta kanal alternatiborik ez dago. Horregatik, “hura konpontzeko ezintasunak are premiazkoagoa egiten du azpiegitura alternatibo hori eraikitzea”.

### **Bake epaile titularra eta ordezkoko hautatzeko prozedura**

Lau urtero lau urterako hautatu behar izaten dira bake epaile titularra eta ordezkoko.

2021-25 tarterako hautaketa prozesua abiatzea onartu zuen udalbatzak aho batez, urriaren 28ko osoko bilkuran. Udal gobernu taldetik zehaztu zuten, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, hautagaitzak aurkezteko hilabeteko tarte zabalduko da. Ezinbestekoa izango da espainiar estatuko nazionalitatea edota adinez nagusia izatea. Bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza kontuan hartuko dituzte. “Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazio Jardunbidea arautzen duen Legea xedaturiko eran aurkeztu beharko dira”.

### **Ertzaintza eta Udaltzaingoaren arteko hitzarmena berritzea**

Orain arteko lankidetzari jarraipena emateko lankidetzaren hitzarmena berritzea onartu zuen udalbatzak aho batez urriaren 28ko osoko bilkuran. Ertzaintza eta Udaltzaingoaren elkarlan eta koordinazioarako bi aldeek betebeharrak zehazten dituzten hitzarmenak; besteak beste, elkarri laguntza eta informazioa ematea, biek erabil-

tzeko komunikazio-sarea eta zerbitzu komunak sortzea eta erabiltzea...

### **Taxien tarifak %2,9 garestituko dira 2022an**

Ekaineko KPI-aren igoera aplikatzea erabaki dute eta beraz, %2,9 garestituko dira taxi tarifak urte berrian sartzearekin batera. Bai Usurbilgoak baita Buruntzaldekoak ere. Udalak eta taxien langileen ordezkariak biltzen dituen Buruntzaldeko Taxiaren Eskualdeko Batzordeak berrikusten ditu urtero taxi tarifak eta hurrengo urtekoak zehazten ditu. Irailaren 24an egin zuten bilkuran aipatu moduan, KPI-aren igoera %2,9ko igoera aplikatzea onartu zuten aho batez. Proposamena gero eskualdeko udalbatzek onartu behar izaten dute; Usurbilgoak aho bateko babesa eman zion proposamenari, urriaren 28ko udalbatzarrean.

### **2022ko tarifak**

Lanegunetan, 07:00-22:00:

- Gutxieneko tarifa: 5,5197 euro.
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,1735 euro.
- Itxaronaldia, orduko: 22,5187 euro.

Egunero 22:00-07:00, igande eta jai egunetan, abenduaren 24 eta 31n:

- Gutxieneko tarifa: 6,5792 euro.
- Egindako kilometro bakoitzeko: 1,8797 euro.
- Itxaronaldia, orduko: 35,3901 euro.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

bazkariak EGUNERO  
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725  
☎ 688 690 361

# “Informazio asko egoteak ez du esan nahi komunikazio ona dagoenik. Ez beti”

**P**andemia bete-betea zela iritsi zitzaion jubilazioa tramitatzeko eguna. Ez zen garai samurra izan. Pentsa, Gizarte Segurantzako bulegoak itxi egin zituzten egun batetik bestera. Aurrez aurreko arreta etenda, jende asko noraezean geratu zen. Tartean, gure gonbidatua. Zorionez, egin beharrekoak egin ahal izan ditu eta erretreta hartu badu ere, ez dauka aspertzeko beta handirik. Lanean zen garaian bezala, saltsa askotan murgilduta dago.

**NOAUA! Egin eta Gara egunkarietako kazetaria izan zara. Hori izan da zure ogibidea jubilatutako zaren arte. Papera, euskarri gisa, hiltzorian dela entzun dugu azken urteotan. Pantailari pegatuta bizi garen arren, paperekoak pisu handia du oraindik ezta?**

**Arantxa Manterola:** Digitalizazio kontuak eta sareak hemen daude jada. Saihestezina da, baina desagertuko denik ez nuke esango.

Paperak irauten du, eta oraindik asko eta asko joaten gara hemerrotekak begiratzera. Paperak gainera, oraindik ematen du zilegitasun bat. Nahiz eta orain dela bi urtekoa izan,



Arantxa Manterola ibilbide luzeko kazetaria da. “Berri batek behar du konparaketa bat, behar du azterketa bat, behar du bilaketa bat, behar du seriotasun bat. Hori da kazetariaren zeregina”.

## ARANTXA MANTEROLA

**“Tresnak baditugu informazioa kontrastatzeko, baina ahaztu egiten ditugu eta erraz irensten dugu ematen diguten guztia. Errazegi”**

zilegitasun bat badu.

**Paradigma aldaketa oso denbora gutxian eman da. Orain**

**edonor da igorle, edonor da informazio iturri. Testuingurua hori izanik ere, kazetari profesionalen papera inoiz baino funtsezkoa izango da, ezta? Egiatzotasuna nagusitzea nahi badugu behintzat.**

Funtsezkoa, erabat. Informazio asko egoteak ez du esan nahi komunikazio ona dagoenik. Ez beti. Berri batek behar du konparaketa bat, behar du azterketa bat, behar du bilaketa bat, behar du seriotasun bat. Hori da kazetariaren zeregina.

Zenbait ‘berri’ iturririk gabe agertzen dira, eta populismoak esate baterako, horrelakoak barra-barra erabiltzen ditu. Irizpidea behar da horren aurrean. Baina hori ez dute eskoletan erakusten, norberak berea izan beharko luke, hasteko, zer izan daitekeen gauza logiko bat eta zer ez bereizteko. Tresnak baditugu informazioa kontrastatzeko, baina ahaztu egiten ditugu eta erraz irensten dugu ematen diguten guztia. Errazegi.

## “NOAUA!k halako kohesio bat eman dio herriari”

**NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkarteak. 25 urteko ikuspegia duzun aldetik, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?**

**Arantxa Manterola:** Uste dut NOAUA!k halako kohesio bat eman diola herriari. Herri izaera edo nortasuna. Dagoeneko txertatua dago etxe askotan. Batzuk ez dute hainbeste

irakurriko, baina gure sukaldeetan dago. Gero, zer hobetu, zer kendu edo jarri... Atzera begira jarriko nintzateke, adibidez –memoriari lotutako nire obsesioaren ondorioa baino ez da izango-. Paperekoan orri bat jarriko nuke, noizbehinka, hamabostero edo, herriko txoko baten historiarekin. Orreagako mugarrak esate baterako, horiei buruzko azalpen batzuk

emango nituzke. Etxe zaharren historia, familiena edo zuhaitzena... Herria ezagutzen joan gaitzen.

Kaleen izenekin, gauza bera. Etxebeste jaunarena nahiko ezaguna da, baina erakargarria izan daiteke gisa horretako datuak ematea eta kaleen izenen zergatia azaltzea.

Euskarri digitalean, badakit baliabide faltari lotuta dagoela

esango dudana, baina bartzuetan iruditzen zait bideoak luzeegiak direla. Editatu egin behar dira. Esate baterako, umeek dantza egiten dutenean Inauterietan, zatiak erakustea ondo dago, baina 20 minutu dantza saioak...

**Kar, kar, kar.**

Pixka bat luze egiten dira horrelako bideoak.

# “Hemen kalteak eta minak denek eragin dituzte”

**NOAUA! 47 urteren ondoren, errepresaliatu politikorik ez da Usurbilen. ETaren armagabetzearekin batera, begi bistakoa da espetxe politikan aldaketak eman direla azken urteotan. Nahi baino mantsoago akaso?**

**Arantxa Manterola:** Nahi baino mantsoago eta behar baino mantsoago. Eta berandu, baina beti da zerbait. Egia da dispartzioaren politika izan dela eta segitzen duela izaten orain ere odol-hustea zentzu askotan. Aspalditik gauzak nolabait errazki konpontzea zeuden, eta errazki esaten dut, lege arrunta aplikatuta. Orain ari dira pausotxo batzuk ematen. Zuk baldin badaukazu zure senidea 1.000 kilometrora, 40 minutuko bisita egiteko egin behar dituzu 2.000 kilometro joan-etorrian. Ekartzen baldin badute gertuago dagoen espetxe batera, 300 kilometrora adibidez, aldea dago. Galdera da, zergatik ez dituzte ekartzen zuzenean Euskal Herrira? Betiko kontua. Zergatik hain mantso? Eta zergatik batzuk bai eta besteak oraindik ez? Arrazoi politikoengatik. Presoen gaiak segitzen du oso zaila izaten. Abokatuak askotan joaten dira espediente juridikoak nola daudden ikustera eta ez diete informazioerik ematen.

Presoa Estatuarentzat karta bat da. Orain nabarmenago ikusten ari gara zer karta diren. Frantzia eta Espainian daudden gobernuak behar batzuk dituzte eta laguntza batzuk behar dituzte politikoki beren programak aurrera eramateko. Nahikoa begi bistakoa da zergatik hasi diren sozialistak gerturatze horiek egiten. Kasu batzuetan Euskal Herrira ekarri dituzte, baina gehienak oraindik gerturatzean geratu dira.



“Min handia dago alde guztietan. Hori dena jasotzea zaila da. Hasteko, bizirik dagoelako. Bizirik eta gordinegi”.

## ARANTXA MANTEROLA

**“Memoria kontuetan eta batez ere horrelako konfrontazioetan, aspalditik argi daukat arlo eta alde guztietan egon dela sufrimendua, eta horiek denak jaso beharko lirakeela”**

**Giza eskubideen urraketa gehiago eman dira azken 50 urteotan. Baita Usurbilen ere. Bizikidetzaren izenean, lagungarria litzateke giza eskubideen alorrean izan diren beste urraketen memoria ere egitea, ez al zaizu iruditzen?**

Memoria kontuetan eta batez ere horrelako konfrontazioetan, aspalditik argi daukat arlo eta alde guztietan egon dela sufrimendua, eta horiek denak jaso beharko lirakeela. Besterik ez bada, datozen belaunaldiak jakin dezaten zer den konfrontazio politiko bat. Zer ekartzen duen. 36ko gerrako kontuak orain nolabait onartzen diren bezala, jada normaltasun batekin, oraindik gatazka politikoa bizirik dago. Oraindik arrastoak daude. Oraindik presoak daude. Min handia dago

alde guztietan. Hori dena jasotzea zaila da. Hasteko, bizirik dagoelako. Bizirik eta gordinegi. Zaila da baina aldi berean beharrezkoa. Nik horregatik esaten dut, 36ko gerrako kontuetan baino nahiago nukeela gainontzeko urteen liburua egitea. Gatazka gertutik bizi izan duen belaunaldia bizirik dagoelako. Lehen memoriarekin aipatu dizudan bezala, batzuk bizi dute modu batera eta beste batzuk bestera. Hor egon behar du denetariko bilketa. Zaila da egiten, baina ezin du izan ‘hau horrela izan zen eta punto’. Ez. Hau horrela izan zen, eta horrela, eta horrela...

**Poliedrikoa izan denez, sufrimenduaren alde guztiak islatu beharko lirakeke.**

Poliedrikoa da, bai.

**Gogora fundazioa adibidez, herri herri ari da ekitaldiak eta erakusketak antolatzen. Nola ikusten duzu fundazio publiko honen zeregina?**

Gogora poliedro baten alde bat baino ez da, nire ustez. Egiten ari da bere lana, baina Madrillgo Gobernuak uzten dion neurrian.

Bi adibide jarriko dizkizut.

Oraintxe bertan ari dira 1978tik aurrerako indarkeria polizialaren biktimen legearekin bueltatuta. Lau bat urte kostatu da idaztea, eta mutilatuta ekarri dute legea. Errekonozimendu bat falta da, jasota gera bedi polizia gehiegikerietan egin zirenak urte haietan. Uste dut aitortza sozial bat badagoela, baina ez da egongo beste aitortza instituzionalik. Erreparazio txiki bat egongo da, baina gehiegikeria horien egileei ez zaie ezer gertatuko. Herren dago beraz.

Herren dagoen bezala biktimatza ez hartzea, adibidez, dispartzioak hil dituen 16 senideak. Orduan, zer nahi duzu esatea? Konfrontazio politikoa egon dela eta dagoela onartzen denean, eta horren arrazoiak onartzen direnean, ez da inongo arazorik izango hori dena aitortzeko.

Ezker Abertzaleari maiz eskatzen zaio “zoru etikoa” delakoa, baina hemen kalteak eta minak denek eragin dituzte. Nire ustez gizarte honen ardurak orokor bat da. Baina ez bada muina onartzen eta bata bestearen kontrako arma gisa erabiltzen baldin bada, ez goaz inora. Zuk hau egiten duzu, baina gero ez duzu hau egiten, eta ez ni zurekin joateko hau egiten behar duzu... Horrela hasten bagara, ez goaz inora. Beraz, egon badira eta jaso beharko dira denen kontakizunak. Baina zerbait globala lortzeko, muina da onartzea hemen gatazka bat dagoela, konfrontazio politiko batera eramane gaituena. Zoritxarrez, konfrontazio politikotik haratago doa: hildakoak, zaurituak, torturatuak, iheslariak... Indarkeria itzela. Baina onartu beharko da muina. Datozen belaunaldiak ez dezaten gauza bera egin.

## Azaroko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

## Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Hilabete honetan kiroldegi-  
ra joaten jarraitzen baduzu,  
ikasturte guztia iraungo  
duzu, animo!

Hileko aholkua: Baina klase  
barrura sartu behar duzu!

**CANCER**

Iraganean gorabeherak izan  
dituzu, baina orain sasoi be-  
tean zaude. Aprobetxatu.

Hileko aholkua: Ez hurbildu  
anbulatoriora!

**LIBRA**

Kontaktu fisikoa faltan bota-  
tzen zenuen eta orain denak  
besarkatu eta musukatzen  
dituzu.

Hileko aholkua: Saiatu hori  
soilik ezagutzen duzun jen-  
dearekin egiten.

**CAPRICORNIUS**

Azaroa hasi besterik ez da  
egin eta dagoeneko Gabone-  
tako oporretan ari zara pen-  
tsatzen.

Hileko aholkua: Gabon kanten  
playlista osatu behar duzu le-  
henbailehen.

**TAURUS**

Zure bizitzarekin zer egin ez  
dakizula zaude, eta sorgin gur-  
pil horretatik ateratzen ez ba-  
zara, jai daukazu.

Hileko aholkua: Pentsatu  
duzu NOAUA!ko bazkide egi-  
tea? Gure atek beti daude  
zabalik!

**LEO**

Aspertu xamar zabilta azken  
aldian, eta ezin duzu horrela  
jarraitu.

Hileko aholkua: NOAUA!ko  
kulturaldia ekitaldi interesgar-  
ri beteta dator; eskuratu zure  
sarrera!

**SCORPIUS**

Zure urtebetetze eguna hur-  
biltzen ari da eta urduri zau-  
de zahartzen ari zarelako.

Hileko aholkua: Filosofia-  
rekin hartu: pentsa ez zare-  
la gaur bezain gaztea inoiz  
izango!

**AQUARIUS**

Erelek bezala lorez lore ibiltzen  
zara eta ez duzu hasitako gauza  
bakar bat ere bukatzen.

Hileko aholkua: Izarrak eta  
konstelazioak zeharo haserre-  
tuko dira kiroldegiko ikastaroa  
bertan behera uzten baldin ba-  
duzu!

**GEMINI**

Ordu aldaketarekin guztiz  
despistatuta zabilta: ez da-  
kizu azkar edo berandu iris-  
ten zaren tokietara.

Hileko gomendioa: Honda-  
rrezko erloju bat erosi ezazu!

**VIRGO**


Maitasun kontuetan oso zuzen-  
a zara. Pertsona bat gustatzen  
zaizunean, berarengana hel-  
tzeko modua bilatzen duzu...

Hileko aholkua: ...baina  
NOAUA!n iragarki bat idaztea  
zita bat eskatzeko gehiegitxo  
da.

**SAGITARIUS**

Sorpresa ekonomiko bat duzu  
itxaroten datozen egunetan;  
adi egon.

Hileko aholkua: Ez al zenuen  
kontribuziyuaren bigarren  
zatia ordaindu behar?

**PISCIS**

Zenbat kostatzen zaizun bote-  
rea delegatzea! Zure bizitzako  
puntu honetan, beharrezkoa da  
beste pertsoneri aukerak ematea,  
haiek ere merezi dute eta.

Hileko aholkua: Hurrengo pa-  
rrandan botea eraman dezala  
beste batek!

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO  
Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 20170  
USURBIL

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil



# Artisauak plazara itzuli dira



Iazko etenaldia eta gero, artisauak gogotsu itzuli ziren frontoira. Aitzaga Elkarteak antolaturiko azokan hamaika artista elkartu ziren. Tartean, hiru herritar: Inma Arroyo Iurretagoiena, Jurgi Fuentes Goikoetxea eta Zorione Mendez Martin. Denetariko sortze-lanak ikusteko aukera izan zuten bisitariak.

# Ainara Azpiazu Aduriz: “Muralgintzaz, museoa kalera eramate hori dut gustukoan”

Hilero moduan, Sarek presoen eskubideen aldeko elkarretartzea deitu zuen urriaren 29an. Aldarri honek badu txoko propioa duela urte askotatik Zubiaurreneako biribilgune ondoko horman. Mural berria estreinatu berria dute. Kabiene guneko kide Ainara Azpiazu Adurizen (Hernani, 1980) sortze lan ederra duzue.

## NOAUA! Zure begiradatik nola aurkeztuko zeniguke Zubiaurreneako murala?

**Ainara Azpiazu Aduriz:** Tradizioz hemen presoen inguruko murala egon izan da eta oraingo hau ere hala egitea eskatu zidaten. Herrigintza ere islatzea eskatu zidaten. Alternatiba ezberdinak marrazten aritu nintzen. Gehien gustatu zitzaidana hauxe izan zen; erratzaren ideia etorri zitzaidan. Erratz luze bat jende askorentzako tokia zuena, azpian sasi tankerako batzuk eta goian lainoak.

## Nola proiektatzen da halako sortze lan bat tamaina honetan?

Kasu honetan enkargua egin zidaten eta eraikineko bizilagunen onespena behar nuen. Bozetoa beraiekin kontrasta-



Ainara Azpiazu Aduriz, bere obraren ondoan eserita. Uda partean margotu zuen murala.

### AINARA AZPIAZU

**“Denek lana erraztu didate; bai enkargua egin zidatenek, eraikineko bizilagunek, bai hemendik pasa diren guztiek”**

tzea eragin zuen. Proportzio igualeko artxibo bat egin nuen. Horrekin aritu nintzen lanean ordenagailuan. Koloreei eta irudia ondo definitzeari buelta batzuk eman eta gero jada eskala handian egitea dator.

Aurrez egin izanaren poderioz nahiko modu errazean egiten dudana gauza bat da. Kasu honetan, erratzaren makilaren erreferentzia bat behar nuen, irudiaren erdigunea eta erratzaren irudiaren bolumena non joango zen ikusi. Hiru herenen teknika baliatuta, azpitik hasita heren bat sasiei ematen saiatu nintzen eta beste bi herenak uzten laino eta erratzarentzat.

## Uda bete aritu zinen margoketa lanetan. Eguraldia la-

## gun izan al zenuen ala arerio?

Normalean eguraldia lagun ikusten dugu mural bat margotzeko euririk egiten ez duenean, baina horma honetan eguzkiak gogotik jotzen du eguneko ordu luzeetan. Egun eguzkitsiak izan ziren eta batzuetan gogor samarra izan zen. Behin oroitzen dut Kabienera bazkaltzera joan eta denek esan zidaten gorrituta nengoela. 30 gradutik gora hemen jo eta su ordu luzez aritu nintzen.

## “Sortze-prozesua oso polita izan da”

### NOAUA! Noiz esaten du artista batek, kito, amaitua dago.

**Ainara Azpiazu Aduriz:** Bukatu eta berehalaxe beti izaten dut une kritikoa bat beti, esaten dudana hau gaizki egin dut. Askotan egin dudanez badaikit sukar momentu bat dela, bizpahiru asteetara pasatzen dena. Edozer eginda ere beti hobetu daiteke edozer gauza. Kasu honetan, oinarritzko de-

taile guztiak ondo eginda zeudela ikusi nuenean, orduantxe esan nuen, listo. Letrak ere asko kosta zitzaizkidan, azken unean egin nituen. Hirugarrenean asmatu nuen. Batzuetan gauzak trabatzen direnean bukatzeko desira sortzen da eta horrek ere batzuetan bukatzen laguntzen du. Letrak ondo jarriak zeudela sentitu nuenean, ontzat eman nuen.

### Zer harreman eraikitzen da artistaren eta halako sortze lan batean artean?

Muralgintzaz museoa kalera eramate hori dut gustukoan. Herria pinturan sartzen dela dirudi edo alderantziz.

### Emaitzarekin gustura beraz.

Badira gauza batzuk, beste era batera egingo nituzkeenak. Baina beste era batera egin izan

banitu beste zerbaitek ez luke hain ondo funtzionatuko. Beraz bai, orohar pozik nago eta prozesua polita izan da. Denek lana erraztu didate; bai enkargua egin zidatenek, eraikineko bizilagunek, bai hemendik pasa diren guztiek. Oso hitz politikak jaso ditut. Udako egun bero hartan tabernakoa etorri zen zerbait behar nuen galdetzera.

# Ainara Ortega: “Lehen aldia dut nik Usurbilen abesten eta ilusio handiz egingo dut”

**A**inara Ortega eta Iñaki Salvador Patri jatetxean arituko dira kontzertua eskaintzen azaroaren 13an. Bazkaria 14:00etan hasiko da, eta txartelak Patrin bertan erosi ahal izango dira 40 euroren truke. Ainara Ortegarekin izan da NOAUA! kantaldiaren berri izateko.

**NOAUA! Azaroaren 13an, Patri Jatetxean kontzertua eskainiko duzu Iñaki Salvadorrekin batera. Nolatan sortu da deialdi hau?**

**Ainara Ortega:** Patrin bazkaltzen izan ginen ostegunean, eta esan zigutenez oso berri-tzailea omen da gisa honetako zerbait egitea. Kontua da duela aste batzuk Pako Agudorekin bertara bazkaltzera joan nintzela, eta Markel hurbildu zitzaigun. Azken horri bururatu zitzaion terraza azpian egin zitekeela kontzertutxo bat, eta orduan, Iban Patriko sukaldaria atera zen eta baiezkoa eman zion proposamenari. Erdi txantxetan hasitakoa ofizial bilakatu zen, eta Pako ibili da hariak lotzen kontzertua posible egin dadin. Kudeaketaz arduratu da, eta beraz, Patrin izango gara azaroaren 13an bazkalostea gozatzen.

**Zer abestuko duzue? Mikel Laboaren abestiak ere izango**



Ainara Ortega eta Iñaki Salvador, hurrenez hurren. Patri jatetxean arituko dira azaroaren 13an. Txartelak Patrin bertan eskura daitezke, 40 eurotan.

## AZAROAK 13, PATRIN

**Euskal kantak, kubatarrak eta jazz kutsukoak eskainiko dituzte bazkalostean**

### dira tarteko?

Mikel Laboa eta Iñaki Salvador erabat lotuta egon ziren garai batean. Elkarrekin jo zuten 25 bat urtez, eta oso pertsona garrantzitsua zen Iñakirentzat. Nik ere Mikel Laboa oso

gertuko eta etxeko sentitu dut beti. Beraz, haren musika egingo dugu, bai.

Horrez gain, euskal kantagintza oso presente izango dugu Mikel Markez eta Amaia Zubiriaren abestiekin, esaterako. Silvio Rodriguez eta Pablo Milanesen kantuak ere tartean izango dira, musika kubatarrari keinu egiteko. Bide horiek jorratuko ditugu, batik bat, baina egia da jazz musikarako ere joera handia dugula. Azken horretatik ere zerbait

izango da.

**Bazkaria egin, eta ondorengo bazkalosteari poztasun pixka bat ematen saiatuko zarete, beraz.**

Hori da asmoa bai. Bazkariaren kontuak Patrin jada hitz eginda dauzkate, eta behin kafeak eta kopak atera ondoren, Iñaki eta biok lekua hartuko dugu. Ilusioz hartzen ditugu horrelako gonbiteak. Lehen aldia dut nik Usurbilen abesten eta ilusio handiz egingo dut.

## “Musikene izan zen elkartu gintuena”

**NOAUA! Iñaki Salvadorrekin arituko zara Patrin. Zuen arteko elkarlana aspalditik dator, ezta?**

**Ainara Ortega:** Kausalitatez izan zela esaten dut nik. Ez dut kasualitateetan sinesten. Musikenen ikasi nuen kantua nik, eta Iñaki Salvador irakaslea zen bertan. Egun batean, berarekin

lan egiteko proposamena luzatu zidan, eta ezin izan nion ezetz esan. Ongi ezagutzen nuen Iñaki orduan, gazteagoa nintzela aitarekin sarritan joan bainintzen Iñakiren kontzertuak ikustera. Musikene izan zen elkartu gintuena.

**Ordutik batera lan egiten du-**

**zue, orduan.**

Bai, lan asko egiten dugu batera. 2003an egin zidan proposamena, eta orduan hasi ginen lanean laukote modura baxua eta batriarekin batera. Kantagintzako sortak hartu eta Iñakik egiten ditu moldaketak. Zoragarriak. Xabier Leteren abestiak, Mikel Laboarenak zein Imanol kanta-

riarenak moldatzen ditu. Azken aldiak, Imanolen abestiekin ari gara asko lanean. Beste begirada batekin gurera ekartzea da asmoa, bestela badirudi aro bat markatu zutela abeslariak eta haien abestiak ere han geratu zirela betiko. Nik uste gure euskal estandarrak berreskuratu behar genituzkeela.

# Lourdes Odriozola historialaria: “Usurbilek punta-puntako garapen ekonomikoa izan du”

**6** 50 urte igaro dira Usurbil hiribildu izendatu zutenetik; 1371. urteko irailaren 11n izan zen. Urtemuga honen harira herri antzerki ibiltaria prestatu dute Kalezarrenko Belmonte auzo elkarteok larunbaterako, azaroak 6, 12:00etan. Hitzorduaz gozatu nahi duenak, Zubiarene eta Errekaxiki kaleak batzen dituen Aliprox saltoki pareko biribilgunetik gora igotzea eskatzen diete antolatzaileek, Errebaltxiki etxe parean ekingo baitiote emanaldiari.



Larunbat honetan, herri-antzerkia Kalezarren. Antzezlana osatzeko Lourdes Odriozola Oiarbide historialariaren lan batean oinarritu dira.

Herriko historiaren hainbat pasarte antzeztu asmo dituzte. Sortze lan hau, Lourdes Odriozola Oiarbide historialariaren lan batean oinarritua dagoela eman zioten aditzera kalezartarrek NOAUA!-ri duela astebeteko aldizkarian. Historialariarengana jo dugu argibide gehiago jaso asmoz.

## “Belmonte de Usurbil”

2004an amaitu zuen herri honi buruz aurreko ia hiru

**LOURDES ODRIOZOLA**  
**“1371. urtean,  
 Usurbilek udalerr  
 independentea izate  
 lortu zuen”**

urteetan egin zuen lanketa. Bi fase bereizi dizkigu. Lehenik, “Usurbili buruzko dokumentazioaren bilaketa”. Lan oso erraza ez, suteak tarteko.

Usurbilgo udaletxea, 1870ean eraikitzen amaitu zutena 1876-77 bueltan erre zela kontatu digu Odriozolak. Mende haren amaieran 1890 inguruan eraiki zuten berria, baina “berriaz 1907an beste sute bat izan eta dokumentazioa erre zen”. Ondorioz, herriko udal artxi-boarekin batera, “bilketa bat egin nuen Gipuzkoako artxi-boetan, Oñatin eta Tolosan”.

Jasotako informazioarekin osatu zuen, 1371n hasi eta 2004ra arteko historia biltzen duen 400etik gora orrialdeko lana.

Herri honen sorreraz mintzo da. Gaztelako Enrike II erregeak hiribildu titulua izendatu zuen 1371. urteko irailaren 11n “Belmonte de Usurbil”. Sorrera horretaraino heldu aurreko gertaerez baita. 1180. urte inguruan, “Nafarroako erregeak Donostiari herri gutuna ematen dio eta hiria sortzen da. Donostiari lur eremu oso zabala ematen dio eta Usurbil bertan da”, inguruko gainerako herriei batera. Pixkanaka, “Donostia lursailak galtzen doa, herri batzuk sortzen doaz”. Lehenik kostaldekoak, geroxeago barrualdekoak. Usurbilek hiribildu titulua 1371n jasotzen du. Eta horrekin “Usurbilek udalerr independentea izatea lortzen du, bere alkate, zinegotzi... propioekin”. Horrekin batera, baita “hirigunea babesteko harresi bat izatea”.

## “XVII. mendean, jendea Kalezarretik Elizaldera jaisten hasiko da”

Berezitasunik badu sorrera garai hark. “Bizileku berri bat” sortzen da, Odriozolak azaldu digunez. “Lehenago, biztanleria Elizalde inguruan kokatua zegoen, Kaleberrin”. Baina garai hartan, egungo Kalezarren bueltan kokatzen da herrigunea. “Hasiera batean, orografia aldetik leku hobe da Elizalde Kalezar baino, Kalezar muino batean kokatua baitago eta kokaguneak hirigintza eta ekonomia garapena mugatzen du”. Halere ordea, herrigunea Kalezarren kokatu eta “behealdean harresi bat” eraikitzea

erabakitzen dute.

Odriozolaren esanetan, “Elizalden garai hartan Eliza, apaiz-etxea eta etxe multzo bat ageri da. Hirigintza garapena Kalezarren gertatzen da”. Zergatia historialariak azaldu du. “Elizaren antolamendurekin lotua dago”. Patronatu ezberdinak zeuden, publikoak eta pribatuak. Usurbilen, “bere patrono pertsona pribatu bat zen; Atxegako jauna”. Lourdesen esanetan, “ez dago halakorik baieztatu dezakeen dokumentu idatzirik” baina badirudi Atxega jaunarekiko “distantzia mantentzeko, bere kontrolpe-

tik at, bere mende ez egoteko” kokatu zutela herrigunea Kalezarren.

Denborarekin ordea, “XVII. mendetik jendea Kalezarretik Elizaldera jaisten hasten da”. Besteak beste, udaletxea bera ere Kalezarretik Kaleberrira lekuz aldatzen dute.

## Antolamendu berezia zuen Usurbilek, “ondo kudeatzeko zaila zena”

Herri honen sorrera garaiaz historialariak adierazi digunez, “agian ez da gaur egun politikoki oso zuzena hau adieraztea baina, herritarren eta

erregearen aldetik interes eta adostasun bat zegoelako sortzen da”, beti ere, “historia garaiko ikuspuntuarekin eta begiekin ikusita”, irizten dio Odriozolak. Orduko biztanleriak, “eskubide batzuk bilatzen ditu, Donostiatik udalerr independentea izatea”.

Usurbilek garai hartan, “antolamendu oso berezia du, ondo kudeatzeko oso zaila”. Batetik, funtzionamendu propioa duen Aginaga, “gune estrategikoa ekonomikoki eta komunikabideen aldetik”. Bestetik, antolamendu bereziarekin, baita Zubieta ere.

# “Merkataritzara bideratuko ziren 1.200 tonako ontziak Usurbilen egiten ziren”

XIV. mende amaierako herri hura marrazteko eskatu diogu Lourdes Odriozola historialariari. Biztanle kopurua egungoarekin alderatuta askoz murriztagoa zen noski. “Gerra desberdinak daude eta hemen biztanleriak babesa bilatu nahi du bere garapena lortzeko”. Orduko herritarrek argi dute, herria “estrategikoki oso ondo kokatua dago. Komunikabide nagusiak ibaiak ziren”. Aberastasun iturri baita. Burdinaren garraioidea zen Europarantz.

Ez zituzten elikagaiak, “ibaitik eta itsasotik” arrantzan eskuratzen zituzten. Errio bazterrean, “izokinaren arrantzak garrantzi handia zuen Usurbilen”. Ibaiak, “garaiko autopistak” ziren historialariaren esanetan, “bere azpiegitura propioak zituen, portu txikiak, produktuak kargatu eta deskargatzeko”.

Lur eremuotan bestalde, “sagardo asko ekoizten zen”. Baina historialariak bereziki goraipatzen duena, garai



XVI. mendean, ontziola bat baino gehiago zegoen Aginagako erriberan.

**LOURDES ODRIOZOLA**  
**“Usurbil Pasaia bezain garrantzitsua eta zenbait uneetan askoz garrantzitsuagoa izan da ontzien eraikuntzan”**

hartan ontzigintzak izandako garrantzia zen. “Europatik ekartzen dira elikagaiak eta beste produktuak. Foruak genituen eta horrek merkataritza babestu zuen. Europatik zetozen produktuek ez zuten ordaintzen zergarik Gipuzkoan

eta guk saltzen genituenak ere ez”. Horregatik dio, “ez da kasualitatea ontzigintza hain garrantzitsua izatea Gipuzkoan eta bereziki Usurbilen”. Odriozolaren esanetan, “Usurbil Pasaia bezain garrantzitsua eta zenbait uneetan askoz garrantzitsuagoa izan da ontzien eraikuntzan. Datuak hor daude. Merkataritzara bideratuko ziren 1.200 tonako ontziak egiten ziren”.

Usurbilgo historiaz arreta deitu dion beste alderdirik ere bada. Beste hainbat herrietan

bezala, “Usurbilen ere izan zirela, botere politiko eta ekonomiko handia izan zuten familia batzuk. Baina bere herriarekiko sentimendu oso handia izan zutenak. Haiek zutena herrian garatzen saiatu ziren”. Bi kasu aipatzen ditu; “Soroa kapitaina, Saroe etxearen jabea eta Mutiozabal familia”. Faktore guztiok egin zuten historialariaren esanetan, “Usurbilek bere urte oparoenak bizitzea, beste herriak krisi sakonean zeudenean”.

## “Altzor bat da Usurbil”

2000. hamarkada hasieran egindako lanketatik ondorio argia atera du Lourdesek. “Usurbilek nortasun propioa du. Bere garapen ekonomikoa puntakoa izan du. Herri handia izan da eta hala izaten jarraitzen du, eta ez naiz Usurbilgoa e!”. Herri honen historia uste du “ez dela ezaguna ez Usurbil barruan ezta Usurbildik kanpo ere”. Bere esanetan, “herria altzor bat da. Ospakizun honek balio dezala hausnartzeko, herria balorean jartzeko”.

## Larunbat honetan, eguerdi partean, herri-antzerkia Kalezarren

Kalezartarrek herri antzerkia egingo dute larunbat honetan, hilak 6, eguerdiko 12:00etan. Auzoan bertan eskainiko dute ikuskizuna. Usurbilgo sorreraren 650. urteurrenaren aitzakiarekin, 1371. urteko Usurbil irudikatuko dute. Orriotan elkarrizketatu dugun historialariaren ikerketan oinarritu dira.

“Duela urtebete auzo elkarteak jarri genuen martxan, Kalezar berpizteko asmoarekin”. Hitzok Beñat Arrutirenak dira, aurreko as-



Azken asteotan buru-belarri aritu dira entseatzeko. Errebaltxiki baserriaren parean hasiko da antzerkia.

teko NOAUA!n jasoak. “Ekin-tzak antolatzea beti izan dugu buruan. Usurbilgo sorreraren

650. urteurrena aitzakia bat izan da guretzat gure auzo proiektua lantzeko”.

Auzotarren partehartzea sustatu asmoz, “ideia bila hasi ginen eta antzerkiarena bururatu zitzaigun”, Aitor Eizagirrek kontatu digunez. “Gure antzezlanak Lourdes Odriozola Oiarbide historialariaren lan batean oinarritzen da”. Eizagirreren esanetan, “auzoetako historia luze eta zabal dago jasoa bertan. Lan horretatik ateratako pasarte batzuk antzeztuko ditugu. Uste dut interesgarria izan daitekeela usurbildar askorentzat gure herriaren historiara hurbildu eta gehiago jakiteko gosea sortzeko”.

# Idoia Torregarai: “Barreterapia saio on bat eginda irtengo dira Sutegitik”

Oparo dator NOAUA! Kultur Elkartearen 25. urtemugako Kulturaldia. Herritarren parte hartzearekin eta umorez blai. ‘Luze edo motz’ Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraien binakako bakarrizketa saioa dugu horren adibide argia. Azaroaren 14ko emanaldiz jardun gara Torregarairekin.

## NOAUA! Sutegira bueltan zaizteza esan daitezke?

**Idoia Torregarai Martija:** Hirugarrenez. 2017ko Euskararen Egunaren bueltan igo ginen lehenbiziko aldiz Mirari eta biok Sutegiko oholtzara. 2018-19 inguruan ‘Bakean dagoena bakean utzi’ saioarekin itzuli ginen.

## Nondik nora zabiltzate “Luze edo motz” saioarekin?

Duela urtebete estreinatu genuen, saio batzuk egiten hasi ginen arren, batez ere aurreko saioaren zikloarekin bukatu genuen. ‘Luze edo motz’-ekin 15 bat emanaldi eskaini ditugu martxotik. “Normaltasun berrira” bueltatu garenean berriro hasi dira programatzen. Udazken hau potentzia izaten ari da.

## Zer dakar zuen bigarren ikus-



Azaroaren 14an Sutegin izango dira Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai.

### IDOIA TORREGARAI

**“Emakumeak asko identifikatzen dira. Gizonezko batzuk harritu egiten dira, baina oso ondo pasatzen dute”**

#### kizunak?

‘Bakean...’ ikusi zutenek badakite gure ardatza umorezko bakarrizketak direla. Umorea, genero ikuspegia eta euskara, hiru ardatz horietan oinarritzen zela. 150 saio egin eta izandako arrakasta ikusita, beharrezkoa ikusi genuen ‘Luze edo motz’ ere bide horretatik egitea. ‘Bakean’-ekin desberdintasuna du, euskararekin halako jolas batzuk sartzen genitue-

la, kasu honetan dena genero ikuspegitik egiten dugu. Biok txandaka, bakarrizketak lotzen goaz. Gaiei dagokienez, aurretik tiraka, itzalpean egoten segitzen dutenei heltzen diegu. Aurrekoan bezala, hilekoa, ligatzeko teknikak, sexu harremanak, masturbazioa... hizpide izango ditugu. ‘Bakean’-en emanaldietatik ikasitako esperientzia horretatik oraindik eta lotsagabeago.

#### Ganberroago al dator ‘Luze edo motz’?

Buruko klik hori barre egiteko indartsuagoa izatea nahi dugu. Orain arte jasotzen ari garen erantzuna oso ona izaten ari da. Ezagutu gaituzten herrietan badakite ahozko-

rik ez dugula ahoan, oso argi hitz egiten dugula gure esperientziatik. Emakumeak asko identifikatzen dira, gizonetako batzuk harritu egiten dira, baina oso ondo pasatzen dute.

#### Umorearen bidez gai serioagoetara errazago hurbildu gaitzeko?

Umorea konexio oso zuzena lortzen du, gai konplexu eta mingarri horiei buelta ematen die. Lehenbizi algarra edo barrea aterako zaizu baina gero pentsatzen utziko zaitu. Horretatik jarri genion ‘Luze edo motz’ izena, luze, oraindik gizarte honek bide luzea daukalako berdintasunerantz; motz, gizarte genero ikuspegitik edo berdintasunetik motz geratzen delako. Frontoiaren tarte horrekin jolastu nahi dugu eta horretatik berriro txaketa gorri eta urdinarekin agertzen gara buruz burukoa egiteko baita ere.

#### Publiko anitza izango duzue. Umore ezberdinekin egin duzue topo?

Umorea asko daude baina egiteko partekatutako behar dira, balio, erreferentzia edo marko batzuk, hori da garrantzitsua. Hori badirudi lortzen dugula.

## “Mirari nire umore bikia da”

**NOAUA! Binakako bakarrizketa saioa, honez gero oso ondo ezagutzen zareten bi lagun artean.**

**Idoia Torregarai Martija:** Mirari nire umore bikia da eta nire bizitzan garrantzia handia duen pertsona. Azkenean lau zapabost urteetan bide hau elkarrekin egiteko zortea izan dugu, benetan oso ondo konektatzen gara umore

re aldetik. Elkar laguntzen gara. Hau egiten dugu ondo pasatzeko eta umorearen boterean sinesten dugulako. Une honetan askoz erosoago sentitzen gara binaka lan egiten, bakarka baino. Orain oso argi sentitzen dugu hau dela gure tokia.

**Etxean jokatzeko duzue oraingoan.**

Oso urduri nago. Ilusio ikaragarria egiten dit herrian eta gainera NOAUA! K.E.-ren 25. urteurreneko Kulturaldiaren baitan izatea. Tarte polit eta berezi bat bizi nahi dutenek hurbildu daitezela Sutegira. Barreterapia saio on bat eginda aterako dira Sutegitik. Gizonezkoek dei berezi bat egin, denok batera ondo pasako dugu eta.

#### Zuen ibilbideak “motz edo luze” segiko du aurrera?

Oraingo oso indartsu eta gogotsu gaude, urte amaiera emanaldiz betea dugu. Fisikoki nekatzen garen arren, mentalki eta bihotz aldetik asetzen gaituen zerbait da. 2022an eta aurrerago ere halako martxan jarraitzea espero dugu, saltsera pare bat gara eta.

# NOAUA! Kulturaldia, egunez egun

## Azaroak 12, ostirala

- 22:00 Zutani Teatroa: 'Bete ingoiau' antzezlanaren antzezlana Sutegin.
- Zehaztasunak: Goiz Eder Iturain eta Esti Curielek harremanen inguruko hausnarketa eragin nahi dute istorio honekin, umore beltz eta absurdoa erabiliz.
- Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

## Azaroak 13, larunbata

- 22:00 Eneritz Furiyak eta Maite Larbururen kontzertua Sutegin.
- Zehaztasunak: Eneritz Furiyakek 'Danena' bere azken lana aurkeztuko digu. Maite Larburuk ere disko berria dakar besapean: 'kRaK'.
- Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

## Azaroak 14, igandea

- 19:00 'Luze edo Motz' binakako bakarriketa Sutegin,



Azaroaren 12an, 'Bete ingoiau' antzezlana erekin hasiko da Kulturaldia.

- Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen eskutik.
  - Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.
- ## Azaroak 15, astelehena
- 19:00 Txerra Rodriguezen '30 urte mihigintzan' hitzaldia Sutegin.
  - Zehaztasunak: "Txerra Rodriguez (Derio, 1977) ez da ha-

siberria euskara elkarten mugimenduan. Euskara elkarten ibilbidean izandako lorpenak, hutsuneak eta erronkak xehexehetuz aletzen saiatuko dira Sutegiko hitzaldian.

- Prezioa: doan.

## Azaroak 19, ostirala

- 22:00 Rupert Ordorikak dis-

ko berria aurkeztuko du Sutegin.

- Prezioa: 10 euro, bazkideek 8.

## Azaroak 20, larunbata

- 19:00 Tio Teronen semeak: 'Festamentua' Mikel Laboa plazan. Euria bada, frontoian.
- Prezioa: doan.

## Azaroak 21, igandea

- 19:00 Don Inorrez taldeak 'Esku hutsik' diskoa aurkeztuko du Sutegin.
- Prezioa: 10 euro, bazkideek 8 eurotan.

## Informazioa, sarrerak:

- NOAUA!-ren egoitzan (bazkideentzako sarrerak NOAUA!ko egoitzan bakarrik eskuragarri) edo usurbilkultura.eus atarian.
- Antolatzailea: NOAUA.
- Laguntzailea: Udala.



## Udal aurrekontuak aurkezteko batzarrak

Parte hartu eta egin zure ekarpena!

8

Azaroak

18:30 astelehena

Atxegalde (Udarregiko jangela)  
Santuenea (Yoga lokala)  
Zubieta (Kaxkape)

9

Azaroak

18:30 asteartea

Kalezar (hur eskola)  
Txokoalde (Txokoargi)

10

Azaroak

18:30 asteazkena

Aginaga (Eliza Zarra)  
Etxealdia (Potxoenea)  
Munalurra (Eguzki elkartea))

11

Azaroak

18:30 osteguna

Kaxkoa (Potxoenea)

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



4 saski zozketatuño ditugu  
azaroaren 22an



Abenduak bitarte bazkide egiten bazara Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150€-ko erosketaren bonoaren zozketan parte hartuko duzu  
943 360 321 / elkarte@noaua.eus

# BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



azaroak 12,  
**OSTIRALA,**  
22:00 Suteqi

ANTZERKIA  
**Bete ingoiau. Zutani Teatroa**

KONTZERTUA  
**Eneritz Furyak eta Maite Larburu**



azaroak 13  
**LARUNBATA,**  
22:00 Suteqi

BINAKAKO BAKARRIZKETA  
**Luze edo Motz**



azaroak 14  
**IGANDEA**  
19:00 Suteqi



2 sarrera zozketatuño ditugu ekitaldi bakoitzeño azaroaren 10ean

Abenduak bitarte bazkide egiten bazara Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150€-ko erosketaren bonoaren zozketan parte hartuko duzu  
943 360 321 / elkarte@noaua.eus



# “Usurbil harrera herri bat izatea lortu beharko genuke”

Etorkizunerako elkarbizitza plana aurkeztu du Usurbilgo Udalak; herritar nahiz eragileekin batera elkarlanean jorratu nahi duen bide-orria. “Usurbil harrera herri bat izatea lortu beharko genuke”. Usurbilgo Udaltetik etorkizunera begira jarria duen erronka hau betetzeko bide-orria diseinatu du, iragan astean Sutegiko aurkeztu zutena.

Iaz “Usurbilgo jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzen” egitasmoaren baitan Udalaren enkarguz Aztikerrek eginiko diagnosian oinarrituriko elkarbizitza plana. Zerrendatuak dituzte helburuak, helburu bakoitza betetzeko lehentasun maila ezberdineko ekintza sorta, eta baita lehen urrats zehatzak ere epe motzera. Ate joka dugun 2022. urtera begira, udaleko gizarte zerbitzuen saileko buru Maria Salsamendik kultur-etxeko auditorioko saioan zioenez, egitasmo hau bideratzeko “baliabideak area gotu egingo ditu” Udalak datoren urtean.

Bide hau halere ez dute bakarrik egin nahi, bidelagun izan nahi dute herria, jatorri ezberdineko herritarrak eta eragileak. “Argi duguna da zuekin batera egin beharra daukagula” bidea. Horretara



Usurbilgo Udalak bide-orri bat diseinatu du.

## AZTIKER

**“Proposamen hau helarazten dizuegu eta zuen esku geratzen da pixkanaka hobetzen joatea”**

rako, Kontseilu moduko bat, sortu nahi dute. “Herritarren eta Udalaren artean osatuko dugun lan gunea” izango dela iragarri zuen Salsamendik. Parte hartzeko gonbita luzatu zuen.

### Aniztasuna nola kudeatu?

Plana iaz Aztikerrek Udalaren enkarguz eginiko ikerlanean oinarritua dago. Aztikerreko ordezkari Enara Eizagirrek egitasmo honen “zeharlerroko izaera” nabarmendu zuen Sutegiko aurkezpenean. Gaia ere hala delako, plan honen garapenari ere modu berean erantzutea du helburu. “Proposa-

men hau helarazten dizuegu eta zuen esku geratzen da pixkanaka hobetzen joatea”, zioen Eizagirrek.

Aipatu moduan, azterlana iaz bideratu zuten, galdera bikoitz honetatik abiatuta; “Usurbil herri anizta izanda nola kudeatu daiteke aniztasun hori? Nola bizi dute herritarrek eta nondik sor daiteke harremana herritarren artean?”. Ikerketa haren bueltan oinarritu dute datozen urteei begirako ekintza plana. 20 elkarrizketa sakon egin zizkieten beste hainbeste usurbildarrei. “Hortik haien diskurtsoak, esperientziak” jaso zituztela azaldu zuen Eizagirrek, “jatorri eta kultur aniztasunari dagokionez”, beti ere Usurbilgo errealitatetik jorratuta.

Gero zazpi saio antolatuta zituzten ikerlan hau plazartu eta etorkizunera begirako ekintza proposamenak bilatzeko. Hortik “ekintza posible

batzuk” definitu zituen Aztikerrek. Udal sail ezberdinetako teknikariekin kontrastatu eta iragan astean aurkezturiko plana diseinatu zuten.

### “Ezezaguna zaiguna ezagutu, ikusezina dena ikustarazi”

Azterketa fasean zehar baliaturiko lanabes nagusia gorai patu zuen Sutegiko aurkezpenean, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak; elkarrizketarena. “Zuei entzutea, sarri askotan egiten ez dakiguna tamalez”. Aipatu moduan hainbat lekukotza bildu zituzten eta hortik sortu zen, iragan martxoko Mundualdian aurkeztu zuten “migrazioari maskarak erazten” dokumentala sortzeko ideia. Modu horretan, “usurbildarrei beren herriki-deak ezagutzeko tresna eskaini nahi izan genien”.

Migrazioari begirada horretatik “so egitea” ezinbestekotzat jotzen du alkateak. “Ezezaguna zaiguna ezagutu, ikusezina dena ikustarazi, hitz batean migrazioari maskarak erazti”. Eta maskarak eraztea aski ez dela adieraziz, urriaren 26an aurkezturikoa, “dokumentu bat baino gehiago da, arlo honetan udalaren jarduna gidatuko duen plan bat, gure bide-orria, zuekin batera eskutik helduta garatu nahiko genukeena”.

## Elkarbizitza plana

### Helburuak

- 1-Iritsi berrien oinarritzko beharrak asetu eta asistentzia eskaini.
- 2-Usurbildar ezberdinen arteko ezagutza eta harremanak sustatu.
- 3-Sentsibilizazioa eta formazioa helburu duten ekintzak.

### Ekintza nagusiak

Besteak beste:

- 1-Iritsi berrien oinarritzko be-

harrak asetu eta asistentzia eskaintzeko:

- Iritsiera eta harrera protokoloa eta gida osatu/berritzea.
- Enpleguan egoera zaurgarrian diren migratzaileekin lanke-ta enplegarritasuna eta lan egoera hobetzeko.
- Euskara ikasketa eskaintza egokitua abiaraztea.
- Aholkularitza juridikoa eskaintzeko zerbitzua.
- Santuenan interbentzio ze-

harrak zerbitzuak hobetzeko.

2-Usurbildar ezberdinen arteko ezagutza eta harremanak sustatzeko:

- Mundualdia bezalako jarduerak urtean zehar.
- Herriko haurrak herritik kanpoko hezkuntza zentroetan matrikulatzeko dituzten arrazoi-azterketa; gurasoak herriko hezkuntza zentroi buruz informatzeko protokoloa disei-

natzea.

- Jatorri desberdinetako herritarrengana heltzeko komunikazio kanalak eta hizkuntza irizpideen lanketa.
- “Zubigileak” erreferentziatzeko pertsonen sarea sortu komunitate eta kolektibo zehatzekin harremanak bideratzeko.
- Herriko gazteak eskolaz kanpoko jardueretan Usurbila gerturatzeko plana.

# “Hurbiltzen den jende motaren arabera aukeratuko dut musika”

Azaroaren 13 eta 27an Santuenean hainbat ekitaldi izango dira, eta horiek alaitzeaz arduratuko da DJ GorkaMendi. Auzotarrak urteak daramatza musika jartzzen, eta auzoan egin dituzten deialdietan ere musika jartzera animatu da. NOAUA!rekin partekatu nahi izan ditu ekitaldien xehetasunak.

**NOAUA! Santuenean jolas eta musika arratsaldea antolatu dute azaroaren 13rako, eta hilaren 27rako ere auzoan ekin-tzak izango dira. Zu izango zara DJ saioaz arduratuko dena. Zein musika mota jartzea aurreikusten duzu?**

**DJ GorkaMendi:** Azaroaren 13an etxeko txikiengatik jolasak egongo dira auzoan, eta hori giro-tuko dudanez, umeentzako abestiak jarriko ditut: Pirritx eta Porrotx, Txirula Mirula... Haurrentzako eguna izango da, eta beraz, musika ere haientzat izango da. Azaroaren 27koa, berriz, helduentzat izango da, eta beraz, pasodobleak, arin-arinak, fandangoak eta gisakoak jarriko ditut. Gazteak ere agertzen badira, gaur egungo musika ere jarriko dut. Hurbiltzen den jende motaren arabera aukeratuko dut musika. Ni DJa baino gehiago animatzailea naiz edo hori egiten saiatzen naiz, behintzat. DJek saioak egiten dituzte musika konkretu baten gainean, baina nik musika egokitzen dut dagoenari eta dantzara animatzen ditut.

**Noiztik zaitugu DJ? Zein izan da zure ibilbidea?**

Nire amaren herrian, Caceresen, nire lagunak herriko diskoteka hartu zuten, “Eclipse 2000”. Haiek badakite nik txikitatik izan dudala musika gustuko, eta hantxe jarri ninduten musika jartzen 16 bat urterekin.



DJ GorkaMendi bitan arituko da hilabete honetan Santuenean. Hilaren 13an gaztetxoentzako musika ipiniko du.

## DJ GORKA MENDI

**“Ni DJa baino gehiago animatzailea naiz, edo hori egiten saiatzen naiz”**

Gustua hartu nion lan horri, eta hortik aurrera, etxera itzuli eta ekipo txiki bat erosi nuen. Gerora, lagun batek Ezpala jatetxeko nagusia ezagutzen zuen, eta ni DJ lanetan jartzeko proposamen egin zion. Hala hasi nintzen 20 urterekin Ezpa-

lan musika jartzen. Hiru urte egin nituen han, eta gero utzi egin nuen ezkondu eta haurrak izan genituen eta. 12 urte egon naiz musika jarri gabe, eta udan Ezpalako nagusiarekin topo egin nuen. Taberna berri bat ireki du Donostiako Alde Zaharrean, eta proposamena egin nion han berriz ere musika jartzen hasteko. Baiezkoa eman zidan eta 2016tik han nabil. Larunbatero jartzen dut musika, eta zenbait ostiraletan ere bai zerbait berezia bada. Boloak ere egiten ditut noizbe-

hinka ezagunek zerbait behar dutenetan.

**Musika betidanik izan duzu gustoko, beraz.**

Txikitatik, bai. Umetan gurasoek teklatura oparitu zidaten, baina pena daukat inoiz musika ikasi ez izanaz. Jotzen ditudan instrumentu guztiak belarriz ikasi ditut, autodidakta moduan. Ez dauzkat musika ikasketarik, eta horrek pena ematen dit. Hala ere, musikaz bizitzeko aukera izan dut. Pixkanaka teklatuari heldu diot, berriz ere.

## Santueneako agenda, ekitaldiz gainezka

### Sendabelarrak, bigarren tailerra

Azaroak 5 eta 12 (ostiralak)

■ Ordua: 17:30, bi ordu egun bakoitzean.

■ Santuenea, 12 elkarteko lokalean.

■ Prezioa: 10 euro bi saioak.

■ Izena emateko bi telefono zenbaki dituzue eskura: 670 027 731 edo 615 715 991.

### Trebetasun jolasak, musikaz girotuta

Azaroak 13 larunbata

■ Ordua: 16:00/19:30.

■ Santueneko plazan.

■ Dj Mendi.

### Gozogintza tailerra

Azaroak 19 ostirala eta azaroak 26 ostirala

■ Ordua: 17:00/19:00.

■ Santuenea 12an, elkarteko lokalean.

### Musika kalean, DJ GorkaMendirekin

Azaroak 27 larunbata

■ Ordua: 18:00/20:00.

■ Jubilatuen lokala eta Santuenea K.E.-ko lokalaren aurrealdean, Dj GorkaMendirekin.

# “Noain 1521” hizpide izango duen zikloa hastear da

**N**afartarrak taldeak ekitaldi zikloa iragarri du datorren asterako.

## Azaroak 9-13

■ 19:00-21:00 “Noain 1521: independentzia berreskuratzeko azken guda” erakusketa Sute-giko aretoan. Gaizka Arangurenen hitzaldia erakusketaren irekieran.

## Azaroak 11, osteguna

■ 19:00 “Orreaga, Peñalén, Amaiur...” Patxi Zabaletaren hitzaldia Sute-giko erakustaretoan.

Zehaztasunak: “Historia eta lurraldetasuna. Historian gara herri. Euskal historiaren berrozterketa Nafarroak ematen duen argibidetik”.

## Azaroak 13, larunbata

■ 10:00 Eneko Del Castillo: “Nafarroako atlas historikoa” liburuaren aurkezpena. 1000 urteetan gure lurraldeak egin



Gaizka Aranguren kazetariak hitzaldia eskainiko du azaroaren 9an Sute-gin.

## NAFARTARREN ESKUTIK

**“Noain 1521: independentzia berreskuratzeko azken guda” erakusketa azaroaren 9an irekiko da**

duen bilakaera.

■ 11:00 Idoia Arrieta: “1200: konkista eta haustura”.

Zehaztasunak: “Lehenengo atalean marko historikoari

ondo heltzeko Nafarroako erresumaren bilakaeraren lerro nagusiak aipatuko ditu. Erresuma “nazionalaren” aurrekariak, 1200. arteko haustura eta haren ondorio hurbilak. Bigarren atalean, Nafarroako erresumaren hiribilduak aztertuko ditu: horien datak, garrantzia eta ibilbidea. Hirugarrenean, historiografiaren hausnarketa egingo dugu”.

■ 12:00-14:00 Mahai-ingurua: Iñigo Larramendi (Nabarral-

de), Mikel Erauskin (Orreaga iritzi-taldea), Andoni Olariaga (Iratzar fundazioa) eta Ianko Ganboa (Eusko Alderdi Jeltzalearen Gipuzkoako Aldundiko juntakidea). Moderatzailea: Ainhoa Larrañaga (Mondragon Unibertsitateko irakaslea).

Zehaztasunak: “Euskaldunok (baskoiak) bagenuen gure izaera eta ohiturak gure legean sartuta, gureak ziren. Gure lurraldetasunak antolakuntza bat ekarri zuen (Nafarroako erresuma) eta honek gure legea bermatzen zuen. 1200. urtean Gaztelak lurralde batzuk konkistatu zituen, eta beranduago, 1512 eta 1620an Frantziak geratzen ziren hondarrak. Gure independentzia galdu zen (lapurtuta)”. Foruak mantendu zituzten, baina 1839 eta 1841ean murriztu zituzten, 1876an erabat kendu...”.

Antolatzailea: Nafartarrak taldea.

## DravetZari erakusketa ikusgai Urbilen

Urbilek DravetZari proiektuarekin elkarlanean dihardu, Dravet sindromeari buruzko gizarte kontzientzia sortzeko. Erakusketa azaroaren 10era arte bisitatu ahal izango da, merkataritza-guneko elkargunean.

Urbil merkataritza-guneak Gero Axular Kultur Taldea eta Apoyo Dravet dantza ikuskizunetarako soilik diseinatutako euskal jantzi tradizionalen erakusketa zabaldu du. “Euskal kultura



Azaroaren 10era arte bisitatu ahal izango da merkataritza-guneko elkargunean.

tresna sozial-inklusibo gisa sustatzeko helburuarekin,

merkataritza-guneak jendeari jantzi bakoitzaren ezaugarriak

ezagutzeko (Emauseko zentro okupazionalen egin-dako manikietan erakusgai) eta Dravet Sindromea duen kideren bat duten familiak egunerokoan nola bizi diren jakiteko aukera eskaintzen du”.

Erakusketak gaixotasuna duen 15 urteko dantzari baten istorioa erakusten du, Gero Axular taldearen jardueretan parte hartzen duena eta Apoyo Dravet elkarte-kidea dena.

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

Zuen  
publizitatea  
hemen

943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**Antxeta**  
TABERNA

egunero irekitzen dugu!  
• eguneko menua • asteburuko menua  
• karta • oilasko erreak, pizzak..

JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!  
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

# Finantza erakundeetan ere euskara lehenesteko konpromisoa

**F**inantza erakundeetako bulegoetan euskararen erabilera lehenesteko konpromisoa erdietsi dute hitzarmen bidez lau urterako Usurbilgo udalerrria kide duen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), bertako kide diren udalerrri euskaldunetako 44 alkateek eta Laboral Kutxak, Kutxabank-ek eta Bankoa ABANCA-k. Tartean, Usurbilgo Udalak eta herriko bi finantza erakundeek.

Udalen eta finantza entitateen arteko harremanetan, finantza entitateen bulegoetako hizkuntza irizpideetan, langileen hizkuntz ohituretan edota banka elektronikoa euskara lehenesteko konpromisoa erdietsi dute hitzarmen bidez, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) 44 udalerriek eta



Usurbilgoa izan da konpromisoarekin bat egin duen udaletako bat.

## 4 URTEKO HITZARMENA UEMAk eta Laboral Kutxa, Kutxabank zein Bankoa ABANCA erakundeek adostu dute akordioa

hiru finantza entitateok. Tartean Usurbilek. Udalerri honen kasuan, hitzarmena adostu du-

tenak Kutxabank, Laboral Kutxa eta udalerrri hau kide duen UEMA izan da, Udalarekin batera noski.

Zazpi puntu adostu dituzte; tartean, "hitzarmena eraginkorra izan dadin, jarraipen batzorde bat" osatzekotan geratu dira. Urtero hitzarmenaren jarraipena egin asmo dute. Lau urterako konpromisoa adostu dute.

## Errigoraren otarrak eskatzeko garaia da

Azaroaren 11ra bitarte bideratu daitezke eskaerak NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. Hiru otar daude aukeran.

### Saski beltza (betikoa), 55 euro:

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, melokotoia almibarrean, melokotoi marmelada, tomate frijitua,

potxak, teilak, mahats-zukua, piper-mamia, kardua.

### Saski berdea (ekologikoa), 65 euro:

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila ardoa, ardo-ozpina, dilista lehorrak, arroza, pasta, barazki-menestra, sagar-zukua, teilak.

### Saski zuria (berezia), 75 euro:

■ Orburuak, zainzuri zuriak, pikillo piperrak, oliba-olio birjina estra, botila kiantza, ardo zuri apartsua, patxarana, pikillo marmelada, txokolatzeko zigarretak, patxaran-pastak, polborioiak.

**Informazioa:** [errigora.eus](http://errigora.eus)

## Sagarrondo egoki baten sekretuak

Aitor Etxeandiaren gidaritzapean, sagarrondoaren eta sagardo on baten sekretuak ezagutu zituzten ostiral arratsaldean Potxoenean.

Etorkizuneko sagastiaren diseinuaz ere datu jakingarriak jaso zituzten: biltzeko makinaria, bariatateak, mentu-oinak, sagastien formatuak...



Datu jakingarriak jaso zituzten ostiral arratsaldeko ikastaroan.

## Miriam Arrillaga, Eskuz Banakako Master Laboral Kutxa txapelketan

Larunbatean hasi zen emakumezkoen eskuz banakako Master Laboral Kutxa txapelketa Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Denera 72 pilotarik eman dute parte hartzeko izena. Horien artean izango da Miriam Arrillaga, 2019ko edizioako txapel-duna.



## Urbil Behobia Txikiaren babesle ofiziala izango da

Datorren azaroaren 13an ospatuko da Behobia Txikia lasterketa eta dortsalak jasotzeko gune ofiziala Urbil merkataritza-gunea izango da. Urbilek eta Fortuna Kirol Elkarteak akordioa berri dute aurten ere, merkataritza-gunea Behobia Txiki-ren babesle ofizial bihurtzeko.

Izena eman ondoren, datorren azaroaren 13an, larunbata, 15:00etatik aurrera Anoetako miniestadioan izango dute zita partehar-tzaileek. Urbilek gune bat jarriko du azaroaren 5etik 12ra merkataritza-guneko oinezkoentzako sarbide nagusian, eta bertan, jasoko dira 2021eko Behobia Txikirako dortsalak. Horiek jasotzeko ordutegia:

- Asteleheneetik larunbatera, 12:00-14:00/16:00-20:00.
- Igandean, 12:00-14:00/16:00-19:00.

## Pilota partidak

Alebin 2. urtekoak eta Infantilak (Errendimentuko Txapelketa, banaka):

### Azaroak 5 ostirala, 18:45:

- Jauregi - Gaskon (Hernani)
- Indakoetxea - Isasti (Mundarra)
- Illaramendi - Txulobi (Urkola)
- Errasti - Mayo (Behar Zana)
- Vidal - Borda (Euskal giroa)
- Bengoetxea - Castillo (Eple)

## Futbol partidak

### Azaroak 6, larunbata

- 10:15 Infantilak, 1. maila: Udarregi Usurbil FT B-Danena KE
- 12:00 Kadeteak, 1. maila: Usurbil FT A-Zarautz KE C
- 16:00 Jubenilak, 1. maila: Usurbil FT-Lagun Onak CD

## Eskubaloit partidak

### Azaroak 6, larunbata

- 16:00: Usurbil K.E.-Umieta Kamox Machining Jubeni neskak.
- 17:45: Usurbil K.E.-Aloña Mendi.
- Errifen zenbaki sariduna: 1282.

**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

**Alokairuan**

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m<sup>2</sup>ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikaz zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera:

943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umek zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosa-

nitarioarekin. 612 433 485.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsua eta onradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. Deitu telefono zenbaki honetara 602 481 854 edo email bat idatzi helbide honetara: anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Orduetegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

**BESTELAKOAK**

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: bouchrahajar@outlook.com

**Zorionak Liher!**

Zortzi muxu handi etxekoan partetik!

**Zorionak Jon!**

Jarraitu horrelako mutiko zoragarria izaten, asko maite zaitugu.

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 04** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 05** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Larunbata 06** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 07** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Astelehena 08** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteartea 09** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteazkena 10** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Osteguna 11** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Ostirala 12** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 13** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Igandea 14** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

# Agenda azaroa

## 05 ostirala

■ **Pintura erakusketa Artzabalen.** Nerea Linazasororen margolanak.

## 06 larunbata

■ **Herri antzerkia Kalezarren.** Errebaltxiki baserriaren ondoan hasiko da, 12:00etan.

■ **"Suharra" dokumentalaren proiektzioa.** 18:00etan Sutegin.

■ **Pintura erakusketa Artzabalen.** Nerea Linazasororen margolanak.

## 07 igandea

■ **Pintura erakusketa Artzabalen.** Nerea Linazasororen margolanak.

## Udal liburutegiko hitzorduak

Ixabel Agirresarobe eta Mattinen eskutik, ipuin kontaketa saio ederraz gozatu zuten gaztetxoek urriaren 27an Sutegin. "Udazkena Liburutegian" zikloak segida izango du azaroan:

### Azaroak 10, asteazkena

■ 18:00 "Kolorez jantzita" ipuin musikatua Sutegin.

■ Nori zuzendua: 3-7 urte artekoiei.

### Azaroak 17, asteazkena

■ 19:00 "Bidea ipar" liburuaz solasaldia, Iker Karrera eta Unai Ugartemendiarekin.

### Azaroak 24, asteazkena

■ 18:00 "MagiaZ: Magia eta Zientzia uz-



Antton Aranburuk eta Lorena Martinek 'Kolorez jantzita' ikuskizuna eskainiko dute azaroaren 10ean Sutegin.

tartuz, Marsel margoarekin" emanaldia Sutegin.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

## Aginagako Eskolako festa

### Azaroak 6 larunbata:

■ Goizean txikientzat nahiz handientzat joko libre eta eskulanak.

■ 7-12 urte bitartekoentzat ihes gela (scape room). Sarrerak mugatuak, interesatuok bidali mezu bat hona:

gurasoelkartea@aginaga.eskolatxikiak.eus

■ Eskolako bazkaria.

■ Arratsaldean karaokea Txatxilipurdirekin. Antolatzailea: San Praixku guraso elkarte.

## "Psikologia positiboa eguneroko bizitzan"

Gure Pakeak gai honi buruzko ikastaroa antolatu du. Azaroaren 9an 17:30ean aurkeztuko dute Artzabalen. Maria Eugenia Arregi psikologoak bideratuko du astean behin eta ordubeteko iraupena izango dute saioek. "Helburua gure eguneroko bizitza modu errazean bideratzen ikastea da, arnasa hobeto hartzea eta erlaxatzea, sendotasun fisiko eta moral handiagoa izateko".

### Datozenak

## Bertso-bazkaria, Kafe Tertuliaren eskutik

Usurbilgo neska\* gazteak saretzeko taldeak bertso-bazkaria eta triki-potea antolatu ditu azaroaren 13rako:

### Azaroak 13, larunbata

■ 14:00 Usurbilgo nesken\* saretze bertso-bazkaria.

■ Bertsolariak: Uxue Alkorta, Libe Goenaga, Lierni Rekondo eta Maddi Aiestaran.

■ Gai jartzailea: Olatz Zuazubiskar.

■ Sarrera: 12 eurotan, Aitzagan eta Txirristran eskuragarri.

■ 18:30 Triki-potea, Ostolaza ahizpekin.

■ Antolatzailea: Kafe Tertulia, Usurbilgo neska\* gazteen taldea.

## Bazkari-kontzertua

### Patri jatetxean

#### Azaroak 13, larunbata

Azaroaren 13rako kontzertu-bazkaria antolatu dute Patri jatetxean. Ainara Ortega kantariak eta Iñaki Salvador pianojoleak girotuko dute bazkari-kontzertua. 14:00etan hasiko da ospakizuna eta txartelak Patrin bertan eros daitezke, 40 euroren truke.

**Kima**  
MASAJE LEKUA  
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA



# Ofizioen Gida



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



## URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

Fax: 943 24 34 60  
Atallu pol. atallu, 28  
20170 - USURBIL

## Josue

Igeltseritza: 606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

## Uraitz, s.l.

Igeltseritza  
Orokorra

Telefona  
693 059392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Gelokl Kalea 15 behe, Lasarte-Oria

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

ITZIRA  
ERAIKUNTZAK

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

## IRUARKAITZ

ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



## Antonio URRUZOLA

### AROTZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialea, 3

## BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Iñaki

### AROTZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



## ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

antenas  
**Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO

DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**

ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak

TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki

## Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain

iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465  
zuriarrainiturgintza@gmail.com

## Rafa

iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KOHFINDATZAKO GREHIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

## ANORGA TXIBI S.L.

### KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

## maiz

hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com ( ONLINE DENDA ERE )  
Ugaldea polig. 18, USURBIL - 943 36 99 39

## ANTZERKIA **Bete ingoiau. Zutani Teatroa**

azaroak 12, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

## KONTZERTUA **Ruper Ordorika**

azaroak 19, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

## KONTZERTUA **Eneritz Furyak eta Maitte Larburu**

azaroak 13, **LARUNBATA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

## DANTZA **Tio Teronen Semeak, Festamentua**

azaroak 20, **LARUNBATA**, 19:00 Mikel Laboa plazan **DOAN**

(Eguraldi txarra bada frontoian)

## BINAKAKO BAKARRIZKETA **Luze edo Motz**

azaroak 14, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

## KONTZERTUA **Don Inorrez**

## HITZALDIA **Txerra Rodriguez. 30 urte mihigintzan**

azaroak 15, **ASTELEHENA**, 19:00 Sutegi **DOAN**

azaroak 21, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

**Sarrerak:** aldez aurretik salgai [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaujaiko egoitzan



**noauja**

# NOAUJA!KO KULTURALDIA 2021

# USURBIL AZAROA

